1.- SARRERA

ADINBERRI Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta gipuzkoar gizartearen tresna bat da, longebitatearen −eta longebitatearekin lotutako hainbat fenomenoren− iraultza eta horrek aurrean jartzen digun erronka eta aukera aztertu eta martxan jartzeko laguntza estrategikoa eskaintzea helburu duena, ikuspegi sozial, soziosanitario eta ekonomiko batetik (Silver Economy).

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan sorturiko erreferentziazko zentroa da, hain zuzen, helburu hauekin: “Gipuzkoako lurraldeak etorkizunari begira dituen erronkak kolektiboki detektatu eta aurre hartu, erronka horiei aurre egiteko modua diseinatu, ingurune errealetan eman daitezkeen erantzun posibleak esperimentatu hainbat eragileren laguntzarekin eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan aplikatu”. Ildo horretatik, sistema soziosanitarioarekin, akademiarekin, enpresa-sarearekin, erakundeekin eta, oro har, gizartearekin egindako lankidetza dago ADINBERRIren jardunaren oinarrian.

Zahartzaroarekin lotutako erronkei erantzun berritzailea emanez, eta lau urteko Berrikuntzarako Agenda Estrategiko espezifiko baten bitartez, ADINBERRIk adinekoen bizi-kalitatea bermatzeko egiten du lan, zahartze aktibo, osasuntsu eta zentzuduna sustatuz eta bizi-proiektu oso bat bultzatuz. ADINBERRIk erantzunak eman nahi ditu gaur egun, adinekoen etorkizuna hobetu ahal izateko, eta, belaunaldi arteko ikuspegi batetik, adin guztientzako gizarte bat eraiki ahal izateko.

Helburu horiei heltzeko, hainbat osagai/tresna erabiltzen ditu ADINBERRI Fundazioak, eta horien bidez aplikatzen du bere Berrikuntzarako Agenda Estrategikoa:

Hain zuzen, hauek dira ADINBERRI estrategiaren egungo osagaiak:

1. **ADIBERRI Erreferentzia Zentroa,** zeinak adinekoen arretarako ekosistema bateratu bat sortuko baitu eta zahartzaroaren arloko erreferentziazko espazio bat izango baita. Balio gehigarri handiko zentro bat izango da; izan ere, ezagutza sortzeko gaitasuna izango du, arreta- eta negozio-eredu berriekin esperimentatuko du, ekintzailetza eta intraekintzailetza sustatuko ditu, eta, horren bidez, Pasaiaren −eta lurralde osoaren− garapen ekonomiko eta sozialari lagunduko dio.

2. ADINBERRI Fundaziotik bultzatutako proiektu traktore eta esperimentalekin lotutako diziplina anitzeko **eragileen ekosistema bat,** gobernatza-eredu kolaboratibo baten pean. Gaur egun, zahartzaroaren arloko berrikuntza-proiektuak eta negozio-aukera berriak bultzatzeko laguntza-deialdiekin lotutako 400 eragilez, 6 proiektu traktorez eta 55 proiektu esperimentalez osatutako diziplina anitzeko ekosistema du ADINBERRIk. Ekosistema zabal hori berrikuntzara eta ekintzailetza

oinarri dituen komunitate birtual bat da, zeinak zahartzaroaren arloko berrikuntza esperimentaleko proiektuak identifikatu, lotu eta bultzatzen baititu, Adinberri ekosistemaren gaitasunak areagotzeko helburuarekin.

3. **SIA (Adimen Aurreratuko Sistema)** ezagutza partekatzeko, joerak identifikatzeko eta Gipuzkoak, Euskadik eta gure inguruko gizarteek zahartzaroaren inguruan dituzten erronka nagusiekin lotutako etorkizunak diseinatzeko plataforma da.
Dimentsio soziala, soziosanitarioa eta ekonomikoa kontuan izanik, zahartzaroaren inguruko ezagutza espezializatua kontzentratzeko bokazioz sortutako plataforma da; Gipuzkoak zahartzaroaren arloan dituen erronken gobernantza aurreraturako tresna bat.

4. Zahartzaroarekin lotutako erronkei ikuspegi sozial eta ekonomikotik erantzuteko I+G+b proiektuak bultzatzen dituzten **laguntzen deialdia**.

   Laguntzen deialdiarekin loturik, ADINBERRI Fundazioak **"Adinberri Radar metodologia"** landu du, proiektuek ADINBERRI estrategian duten inpaktua monitorizatu eta ebaluatu ahal izateko, eta, hala, diruz lagundutako proiektuei segimendua eta ebaluazioa egin eta zer eragin duten zehazteko.

5. **ADINBERRI Labs sarea**: Gipuzkoako laborategi aurreratuen sare bat da, produktuak eta zerbitzuak ingurune errealetan eta azken erabiltzailearekin sortu, probatu eta baliozkotzeko.

   Fundazioaren Balio Proposamena osatzen dute osagai eta tresna horiez guztiez gain, eta ADINBERRI ekosisteman egindako entzute aktiboko prozesuaren ondorioz, **erronka batzuk** lehenetsi dira. **Erronka horiei aurre egiteko**, **berrikuntza** zeharkako ardatz duten **proiektu traktore/esperimental batzuk** landu dira, zahartzaroaren arloko arreta- eta zaintza-eredu berrietan nahiz produktu eta zerbitzuetan.

Hain zuzen, hauek dira Adinberriren erronkak eta martxan jarri dituen proiektu traktoreak:

1. OSASUNAREN PREBENTZIOA ETA SUSTAPENA
2. ETORKIZUNEKO ARRETA ETA ZAINTZA EREDU BERRIAK: Zaintza Herri Lab, Adinprest.
3. EGOITZETAKO ARRETA EREDUA
4. SILVER ECONOMY: Silver Economy Erronka.
5. ZAHARTZAROAREKIN ETA LOTUTAKO EREDU ETA PARADIGMA BERRIAK:
   SILVER BIZITZA: Autonomiaren, parte-hartze sozialaren eta talentuaren sustapena helburu duen bizitza-proiektua.
6. GIZARTE KOHESIONATU ETA INKLUSIBOA:
   Hariak – Gipuzkoa intergenerazionala.

Eta, zehazki, seigarren erronka global horren barruan, bakardadeak daude; nahi gabeko bakardadeak. Erronka horri heltzeko, estrategia espezifiko eta berezi bat landu da: HARIAK.

2.- AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Hariak izena du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberrik nahi gabeko bakardadeak prebenitu eta lantzeko martxan jarritako estrategiak. Hain zuzen, Gipuzkoako gizarteak eta erakundeek gipuzkoarrek bizi dituzten edo bizi ditzaketen bakardade egoerekin duten konpromisoa adierazten duen estrategia bat da.

Etorkizuna Eraikiz eta Gipuzkoa 2020>2030 Agendaren barruan kokatzen da, eta etorkizuneko politika publikoak modu partekatuan eraikitzea eta Gipuzkoa zaintzen eta politika sozialen arloan aitzindari izatea du helburu.

Hariak-ek ikuspegi etiko, enpatiko eta humanista du oinarri, eta balio, printzipio edo ikuspegi jakin batzuk; besteak beste: generoaren ikuspegia, elkartasun intergenerazionala, diziplinartekotasuna, intesekzionalitatea, erakundeartekotasuna eta lankidetza publiko-pribatu-komunitario-solidarioa.

Bakardade egoerak prebenitu, landu edo akonpainamendua egiteko, gipuzkoar guztiek pertsona, egitura, jarduera, laguntza eta tresna batzuk izatea du helburu Hariak estrategiak; gipuzkoarrek zentzuzko lotura sozial eta afektiboak izatea eta, modu horretan, gizartean gehiago parte hartu eta loturak estutu ahal izatea. Eta, horretarako, funtsezkoa da administrazio publiko, erakunde sozial, enpresa, akademia eta beste eragile batzuen ekintza bateratu eta kolaboratiboa.

Estrategia horren foku nagusia adineko pertsonetan eta zahartze-prozesuetan jarrita dago, baina ez modu esklusibo eta baztertzailean. Gipuzkoako gizarte guztiari zuzenduta dago, elkartasun intergenerazionala funtsezkoa baita.

Hariak estrategia bultzatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak mezu argi bat bidaltzen du: erakunde publikoek ez dituzte ikusiko gipuzkoarrek bizi dituzten edo bizi ditzaketen bakardade egoerak arazo edo kontu partikular modura, baizik eta ahalegin kolektibo handi bat merezi duen erronka partekatu gisa.


Horrekin loturik, azken urte hauetan, Gipuzkoan, hainbat erakunde sozialek landu dute bakardadearen gaia, zuzenki nahiz zeharka, hainbat motatako ekimenen bitartez. Hala ere, duela urte gutxi batzuk arte, ez da argi ikusi bakardade egoerak kolektibitate osoaren arazo bat direla, eta, beraz, politika publikoen bidez egin behar zaiela aurre.

Hortaz, orain arte tokiko mailan egindako lana aitortuz eta balioa emanez, Hariak-ek estrategia bateratu bat eraiki nahi du Gipuzkoa osorako, hainbat erakunde, erakunde sozial eta eragilerekin batera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak −Adinberri Fundazioaren eta Gizarte Politiketako Departamentuaren bidez− bakardade egoerei aurre egiteko Gipuzkoako estrategia lantzeko prozesua martxan jartzea erabaki zuenean, aurrez bakardade egoeren azterketa, prebentzio edo lanketa arloan ibilbide bat zeukaten administrazio publiko eta gizarte zibileko kidez osatutako eragile-talde bat sortzea erabaki zuen. Talde horrek, lehenik, oinarrizko dokumentu bat landu zuen; ondoren, parte-hartze prozesu bat egin zen, eztabaidarako, ekarpenak egiteko, nazioarteko konparaketen lan sistematikorako eta berrikuspen bibliografikoa egiteko, eta horrelaxe egin zen gaur egun dugun dokumentua. Zenbait urtetarako esparru estrategiko egonkorra izateko bokazioa duen dokumentua da. Dokumentu horretan oinarrituz, aldi baterako planak egiten dira, bakardade egoerak prebenitzeko eta lantzeko jardueretan aurrerapausoak egin ahal izateko.

Beraz, erakunde publikoekin eta gizarte antolatuarekin elkarlanean, 2020-2021ean zehar aurrera eramandako parte-hartze prozesu zabal eta sakon baten emaitza ere bada Hariak. 53 lagunez osaturiko talde eragile batek gidaturik (erakundeetako ordezkariak, gizarteko ordezkariak eta adituak), guztira, 400 lagunek baino gehiagok hartu dute parte duela bi urte baino gehiago martxan jarritako parte-hartze prozesuan: Gipuzkoako 77 udal, 98 erakunde sozial eta tokiko eragile, Osakidetza 6 ESIren bitartez eta 20 enpresa eta berrikuntza-zentro. Halaber, parte-hartze prozesuan zehar, tokiko 637 ekimen identifikatu zituzten, zuzenean nahiz zeharka, nahi gabeko bakardade egoeren prebentzioan eta lanketan eragina zutenak.

2022an −maiatzetik uztailera bitarte−, eskualdeko komunikazio-prozesu zabal bat eraman zen aurrera Hariak estrategiaren azken bertsioa aurkezteko. 2021ean zehar, eskualdez eskualde, hainbat erakunde eta eragilerekin egindako lana bueltatzeko eta herritarren artean Hariak estrategia zabaltzeko eraman zen aurrera prozesu hori. Hala, Gipuzkoako 10 eskualdeetan, belaunaldi arteko elkarrizketa publiko zabal bat egin ahal izan zen. Guztira, 1.549 lagunek hartu zuten parte.



1. irudia: Estrategia aurrera eramateko ibilbide-orria.

Gaur gaurkoz, jadanik eraikia dago bakardade egoeretan interesatutako eta inplikatutako eragileen sare baten ernamuina. Gipuzkoako Foru Aldundiak Adinberri Fundazioaren bitartez dinamizatutako eragile-sare bat da, bakardade egoerei buruzko begirada partekatu bat duena. Begirada horren bidez, bakardade egoeren aniztasuna eta bakarrik sentitzen diren pertsonen aniztasuna (adina, generoa eta beste faktore batzuk kontuan hartuta) aitortzen da. Bakardadea guztiok gure bizitzako une batzuetan ziurrenik ezagutuko dugun sentimendu gisa aitortzen duen begirada. Bakardade egoerak agertzea eta areagotzea bultzatzen duten egiturazko ezaugarri batzuk identifikatzen dituen begirada, eta kontu handiz aritzen dena, pertsonak bere bakardade egoeren arduradun gisa ikusteko orduan. Bakardade egoeren konplexutasunaz ohartzen den begirada, eta egoera horien dimentsio sozial, emozional eta esistentzialak kontuan hartzen dituena.

Begirada horretan oinarrituz, bakardade egoerak prebenitzen dituzten edo pertsonak bakardadeen aurrean babesten dituzten funtzionamendu sozialak (zaintzak, laguntza soziala edo komunitatea) identifikatzea da Hariak estrategiaren helburua. Noski, horrek ez du esan nahi bakardade egoera larriak baztertzen direnik (baita aringarriak bakarrik izan daitezkeenak ere), baina, batez ere, bakardade egoeren prebentzioari ematen dio garrantzia, eta herritarrek gaitasunak, baliabideak, aktiboak eta laguntzak izateari, bakardade egoerak saihestu eta gainditu ahal izateko.

55 urtetik gorako gipuzkoaren % 30 bakarrik sentitzen da, baina % 5,5ek bakarrik aitortzen du argi eta garbi. Bakardadearen erronka horri aurre egiteko, Hariak-ek

esparru estrategiko bat eskaintzen du, Gipuzkoako bakardade egoeren aurreko jarduerak bideratzeko. Hortaz, estrategia bideratzaile bat da, eta, aldi berean, ekintzara bideratutako estrategia bat.

Hariak estrategiak ereduzko 12 jarduera sailkatzen ditu, zeinak hiru mailatan sustatu eta mailakatzen baitira, lehen, bigarren edo hirugarren mailako prebentzio izaeraren arabera. Hala, lehen mailako prebentzio jarduerak (urbanistikoak, aisialdikoak, sentsibilizazio arlokoak edo parte-hartzaileak) herritar guztiei zuzenduta daude. Bigarren mailako prebentzio-jarduerak, berriz, (bizikidetza arlokoak, auzokoak, akonpainamendu arlokoak edo digitalak) bakardade egoera bat bizitzeko arriskuan dauden pertsonentzat dira. Hirugarren mailako jarduerak, azkenik, (etxebizitza arlokoak, desinstituzionatzaileak, gaitasun emaileak edo konpainia arlokoak) jadanik bakardade egoeran dauden pertsonengana iristen saiatzen dira. Horrez gain, 93 gomendio egiten dizkie Estrategiara atxikitako eragileei, bakardade egoerak prebenitu edo lantzeko ekimenak identifikatzeko. Gomendio horiek, aldi berean, lau ibilbide estrategikoren arabera artikulatzen dira: lehenengoa, Hariak eragileen sarea eta gobernantza eraikitzea; bigarrena, bakardade egoerei buruzko elkarrizketa publikoa bultzatzea; hirugarrena, jarduerak berritu eta mailakatzea; eta laugarrena, ezagutza ebaluatu eta eraikitzea.

Osagai horien guztien bidez, aliantza eta atxikipena lortu nahi ditu Hariak estrategiak, baina ez soilik herritarren artean (“Herritarrentzako Hariak dekalogoa”, bereziki gipuzkoar gizarteari zuzendua), baizik baita Gipuzkoako hainbat erakunde publiko, erakunde solidario eta erakunde pribaturen artean ere, Adinberri Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduaren zuzendaritza eta gidaritza pean. Horretarako, estrategiak bi mailatan artikulatzen ditu bere edukiak.

Batetik, esparru estrategiko bat, zeina estrategiari buruzko dokumentuan jasotzen baita (hemen eskura daiteke: https://hariak.adinberri.eus/hariak/). Haren bidez, estrategiara atxikitako eragileak gidatu nahi dira gidalerro edo gomendioen bidez, Hariak-en esparru kontzeptual eta teknikoarekin bat datozen ekimenak edo jarduerak identifikatu ahal izateko. Orientabide orokor horiek aurreko lerroan azaldutako ibilbide estrategikoen arabera artikulatzen dira: sarea eta gobernantza; elkarrizketa publikoa; berrikuntza eta zabalkundea; eta ebaluazioa eta ezagutza.

Eta, bestetik, esparru operatibo bat edo ekintza-planak, hiru urteko iraupenekoak. Horietan, estrategiara atxikitako erakundeek esparru estrategikoa gauzatu ahal izateko aurrera eramango lituzketen konpromisoak, proiektu esperimentalak edo proiektu esperimental traktoreak eta beste jarduera batzuk jasoko lirateke, bakoitzaren eskumen, aukera eta interesen arabera. Plan horietatik lehenengoa 2022 eta 2024 urte artekoa da.

Estrategiaren zeharkako eta erakunde arteko izaera kontuan izanik, beharrezko gertatzen da maila anitzeko gobernantza-eredu kolaboratibo bat, atxikitako erakunde guztiak inplikatuko dituena. Erakunde batek bakarrik ez du hartu behar, oso-osorik, Hariak bezalako estrategia bat gobernatzeko ardura. Eragile horien arteko

koordinazioa, lankidetza eta elkarrizketa publikoa ezinbesteko hiru elementu dira Gipuzkoako bakardade egoeren arloko helburu komun batzuekiko atxikimendua sustatzeko.


Premisa hori izanik, ardatz parte-hartzaile batetik beharrezkoak diren segimendu- eta ebaluazio-mekanismoak zehazteaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Adinberri Fundazioaren bidez, laguntza teknikoa eskainiko die atxikitako eragileei, beren ekimenak bultzatu eta garatzeko eta Hariak modu egokian zabaltzeko. Halaber, Gipuzkoako bakardade egoeren aurreko estrategiaren bitartez, jarraipena eman nahi zaio Hariak sarea edo mugimendua sortzean ernatutako haziari, hasieratik prozesuan parte hartu duten edo bidean elkartu diren eragile guztiak inplikatuko dituen gobernantza orokor bat sustatu ahal izateko.

Amaitzeko, elementu eta helburu horiek guztiak modu eraginkorrean gauzatu ahal izan daitezen, beharrezkoa da Hariak-etik eta Hariak-i buruz komunikazioa eta elkarrizketa publikoa sustatzea. Ezagutza modu kolektiboan sortu eta zabaldu nahi duen estrategia bat da, eta, horretarako, komunikazio hori inspiratu eta gidatuko duten ideia eta indargune batzuetan oinarritzen da; besteak beste, hauek: prebentzio proaktiboak, lankidetza publiko-pribatu-komunitarioa, zaintzak, harremanak, komunitatea, zeharkakotasuna eta elkarrizketa positiboa. Ideia horiek oinarri hartuz, Hariak-ek komunikaziorako pauta eta mekanismo jakin batzuk zehaztuko ditu, elkarrekin, bakardadearen, zaintzaren, harremanen, laguntzen nahiz komunitatearen arloan aurrerapausoak emateko Gipuzkoako lurralde historikoan.

I.- ZERBITZUAREN XEDEA ETA IRISMENA

3.1 Xedea

Testuinguru hori eta deskribatutako helburuak abiapuntu gisa harturik, bakardade egoeren aurreko Gipuzkoako Estrategiaren barruan, Hariak-en 2022-2024ko I. Ekintza Plana −proiektu espezifiko batzuen bidez gauzatzen dena− koordinatu, kudeatu, dinamizatu, garatu, gauzatu eta ebaluatzeko **idazkaritza teknikoko zerbitzua** ematea da kontratu honen helburua. Idazkaritza Teknikoak Estrategiaren Zuzendaritzari (ADINBERRI eta GFAko Gizarte Politiken Departamentua) lagundu beharko dio estrategiaren gobernantza-ereduan jasotzen diren lanak aurrera eramaten, Hariak-era modu batera zein bestera atxikitako eragileekin elkarlanean. Dokumentu honen 7.1 atalean deskribatzen da estrategiaren gobernantza-eredua: https://hariak.adinberri.eus/hariak/



2. irudia: Estrategiaren gobernantza-eredua.

Erakunde sustatzaile izanik, Adinberri Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamentuak hartuko dute beren gain estrategiaren zuzendaritza, gidaritza, koordinazioa, segimendua, ikuskaritza, sustapena eta ebaluazioa. Funtzio horiek guztiak *#HariakHub* delakoan biltzen dira, zeina eragiketa-gune edo makroprozesu gisa sortu baita: Estrategia eta 2022-2024 I. Ekintza Plana modu egokian kudeatu eta gauzatzen dela bermatzeko helburua partekatuko duten prozesuak biltzen ditu. Adinberri Fundazioak, Estrategiaren sustatzaile izanik, prozesu horiek zuzendu eta gainbegiratuko ditu, eta, horretarako, Estrategia eta politika publikoen koprodukzio-espazioak martxan jartzen lagunduko duen kanpoko erakunde baten edo batzuen laguntza izango du.

a. Testuingurua: Estrategiaren gobernantza-eredua.

#HariakHub-en barruan, hiru gobernantza-egitura ezarriko dira (Idazkaritza Teknikoa, Aholkularitza Aditua eta Hausnarketa Etikoko Taldea), **Estrategiaren Zuzendaritzari lagunduko diotenak**. Bakoitzak bere funtzioak izango ditu, eta, denek elkarrekin, eragiketa-gunea, idazkaritza teknikoa, dinamizazioa, segimendua, ebaluazioa, komunikazioa eta aholkularitza hezurmamituko dituzte. Jarraian deskribatzen dira hiru mekanismo horiek.

1- Idazkaritza Teknikoa

Idazkaritza Teknikoak Adinberri Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamenduaren kanpo-erakunde baten edo batzuen laguntza izango du. **"b. Zerbitzuaren irismena, prestazioa eta iraupena"** atalean, Idazkaritza Tekniko berri horrek kontratu honen esparruan aurrera eraman beharreko jarduerak eta funtzioak deskribatzen dira.

2- Aholkularitza Aditua

Jadanik eratuta eta martxan dagoen figura bat da. Hauek dira Aholkularitza Adituaren funtzio nagusiak, bakardade egoeren arloan:

- Izaera inspiratzaileko aholkularitza, Hariak-en ikuspegitik, Estrategiaren gobernantza- eta zuzendaritza-prozesuaren zerbitzuari.
- Estrategian inplikatutako eta atxikitako erakundeei laguntza teknikoa eta kontrastea eskaintzea, aurreikusitako jarduerak bultzatzeko eta denak bat etor daitezen lortzeko.
- Hariak-en esparruan bakardade egoerei buruz sustatutako elkarrizketa publikoan presentzia izatea eta parte hartzea.

3- Hausnarketa Etikoko Taldea (HET)

Hirugarrenik, Hausnarketa Etikoko Talde bat (HET) aktibatzea aurreikusten da, etikaren ardatzetik, bakardade egoerak prebenitu, arindu edo aldatzeko ekimenak eta jarduerak orientatu ahal izateko. Estrategian inplikatutako hainbat organismo eta erakundetako ordezkariek osatuko dute taldea (Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, hirugarren sektoreko erakundeak, Osakidetza…), eta borondatezko izaera izango du.

Hausnarketa Etikoko Talde horren helburu nagusia etikaren gune eragile bihurtzea da, Estrategiaren arreta-ereduaren kalitate ikuspegitik. Besteak beste, hauek dira talde horren funtzioak:

- Sentsibilizazioarekin, etikari buruzko ezagutzaren kudeaketarekin, praktika onen dibulgazioarekin etab. lotutako ekintzako bultzatu eta sustatzea.

- Oro har, inplikatutako eragileei eta, bereziki, Estrategiara atxikitako erakundeei aholkularitza eskaintzea, Estrategiarekin lotutako neurriak eta proiektuak diseinatu eta planifikatzeko orduan. Aldi berean, talde horrek babes teknikoa eskainiko du ekimen horiek planifikatu eta martxan jartzeko orduan sortutako gatazka etikoei aurre egiteko, gomendioak eginez.

Halaber, Hariak Estrategia eta zehazturiko gobernantza-eredua eraikitzeko aurrera eramandako parte-hartze prozesuan oinarrituz, jarraipena emango zaie edo martxan jarriko dira ondoren aipatzen diren taldeak, Estrategiaren segimendu eta gobernantzarako. Talde horiek dira, hain zuzen, Estrategiaren ernamuina eta Hariak sarea edo mugimendua osatzen dutenak. **Hariak sarearen gobernantza orokorra**:

1- **Estrategiaren segimendurako batzorde edo talde eragile bat,** atxikitako erakunde guztien ordezkariez osatua. Besteak beste, funtzio hauek izango ditu talde horrek:

   - Estrategian jasotako gomendioak zer neurritan lantzen ari diren ezagutu eta bateratzea.
   - Neurri eta jarduera egokiak proposatzea Estrategia ondo zabal dadin, inplikatutako erakundeen behar, eskumen eta aukeren arabera.
   - Erakundeek Estrategiarekiko duten atxikipena berrikusi, eta atxikipen horren baliozkotzeari eta konpromisoari buruzko txostena egitea, Estrategiaren indarraldiaren erdiari dagokion epean.
   - Estrategiaren helburuak monitorizatu eta beharrezko aldaketak eta doikuntzak proposatzea.

Taldeak Idazkaritza Tekniko berriaren laguntza izango du deskribatutako funtzioak gauzatu eta aurrera eramateko.

2- **Hariak-en eraikuntzarako parte-hartze prozesuan sortutako talde eragile zabala,** Hariak-en gobernantza orokorraz arduratuko den erakunde arteko organo publiko-pribatu-komunitario gisa. Horrez gain, Gipuzkoako bakardade egoerei buruz hausnartu, diagnostikoak egin eta elkarrekin kudeatzeko espazio bat izango da, Estrategia zabaltzeko bideak hobetzen lagunduko duena.

Taldeak Idazkaritza Tekniko berriaren laguntza izango du deskribatutako funtzioak gauzatu eta aurrera eramateko.

3- **Talde sektorialak** (udalak, hirugarren sektoreko erakundeak, osasuna, etab.). Talde horietako bakoitzak taldeko koordinatzaile bat izango du. Koordinatzaile horiek sektore bakoitzeko '*Hariak* enbaxadore' gisa jardungo dute.

Talde horiek Idazkaritza Tekniko berriaren laguntza izango dute deskribatutako funtzioak gauzatu eta aurrera eramateko.

4- Proiektukako edo gaikako taldeak, jarduera-esparru jakin batean (hirigintza-plangintza, aisia eta kultura, etab.) diharduten atxikitako erakundeetako ordezkariez osatuak Talde horiek proiektu zehatzetan edo Ekintza Planeko ereduzko jardueretan oinarrituz osatuko dira.

Taldeak Idazkaritza Tekniko berriaren laguntza izango du deskribatutako funtzioak gauzatu eta aurrera eramateko.

3.2 Zerbitzuaren irismena, prestazioa eta iraupena

Kontratuak xede dituen zerbitzuen bidez, Hariak Estrategiaren zuzendaritzari (ADINBERRI eta GFAko Gizarte Politiken Departamentua) lagundu beharko zaio hainbat proiektu espezifikoren bidez gauzatzen den 2022-2024ko I. Ekintza Plana koordinatu, kudeatu, dinamizatu, garatu, gauzatu eta ebaluatzeko lanetan, nahi gabeko bakardadeekin lotutako kontsultak jaso eta, beharrezkoa bada, bideratzeko lanetan, eta Estrategiara atxikitako proiektuei eta Hariak ernamuina osatzen duten erakundeei laguntza teknikoa ematen, alegia, Idazkaritza Tekniko espezifiko baten lanak egin beharko dira.

Horrekin loturik, ekintzara bereziki bideratutako dinamizazioa egiten duen Idazkaritza Tekniko bat izan behar du, Estrategiara atxikitako proiektuekin lotutako prozesuen arteko ezagutza, trukea eta lotura bideratzeko tresna kolaboratiboak ezarriko dituena eta lehendik zeuden lan-espazioak (Kanpo Aholkularitza, Hausnarketa Etikoko Taldea, Estrategiaren Talde Eragilea, Talde Eragile Zabala, talde sektorialak eta proiektukako edo gaikako taldeak) eta prozesuan sor daitezkeen espazio berriak erabiliko dituena, eta proiektuen kudeaketarako eta berrikuntza-proiektuetarako gaitasunak dituena, Estrategiara atxikitako erakundeei laguntza tekniko ezin hobea eman ahal izateko.

Aurrera eramandako jarduera guztien bidez, Hariak Estrategiaren 2022-2024ko I. Ekintza Plana −hainbat proiektu espezifikotan gauzatzen dena− bete ahal izango da.

Horrek esan nahi du, batetik, Estrategiaren Gobernantza Eredua osatu duten lan-espazioak finkatu egin direla, bestetik, Ekintza Planean jasotako ekintza, jarduera eta proiektuak landu eta martxan jarri direla eta, azkenik, taldeek proposatutako jarduerak behar bezala bideratu direla.

Horri esker, Estrategiara atxikitako erakundeen partaidetza hobetu egingo da kuantitatiboki eta kualitatiboki.

4. ZERBITZUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Zerbitzua betetzeko, honako lan hauek egin beharko dira:

1- Hariak Estrategia −zeina 2022-2024ko I. Ekintza Planaren eta hura osatzen duten proiektu espezifikoen bidez gauzatzen baita− bultzatu, segimendua egin eta betetzen lagundu:

a. *Lan-plan bat egin,* bete beharreko eginkizun eta epe guztiekin.

b. *Estrategiaren zuzendaritzarekin batera, Estrategiaren esparru operatiboa edo hiru urteko ekintza-planak planifikatu.* Horretarako, ekintza-plan berri bat planifikatu behar denean, erakunde bakoitzak bakardade egoerei aurre egiteko garatu nahi dituen ekimen zehatzak jasoko ditu, Estrategiaren esparru kontzeptuala, ibilbide estrategikoak, ereduzko jarduerak eta gomendioak kontuan hartuta. Proposamenak egiteko, erronda batzuk egingo dira eragile nagusiekin, Estrategiaren gomendioak eta jarraibideak kontuan hartuta. Informazio hori biltzeko, aurrez zehazturiko tresna-formulario bat banatuko da inplikatutako eragileen artean.

c. Estrategiara atxikitako erakunde eta eragileei laguntza teknikoa eskaini (Hariak esparruaren barruko proiektuak diseinatu, garatu eta aurrera eramateko). Hariak HUB osatzen duen beste osagai batekin −kanpo-aholkularitzarekin− lankidetzan egingo da hori.

d. Estrategiaren Zuzendaritzari eta, zehazki, Adinberri Fundazioari laguntza teknikoa eskaini erakundeak bete beharreko gomendioak gauzatzeko orduan.

e. *Etorkizuna Eraikiz ekimenetik sustatutako gobernantza kolaboratiboa gauza dadin bultzatu,* Estrategiaren adar desberdinetara atxikitako eragileen arteko lankidetzaren bidez.

f. Lan-espazio bakoitzean eta 1. Ekintza Planean (2022-2024) deskribatutako *helburuen segimendua eta ebaluazioa egin*.

g. Erakundeak, taldeak, eragileak eta herritarrak *Estrategiara atxiki daitezen sustatu*.

h. *Estrategiak dituen lan-taldeak dinamizatu, lagundu eta bultzatu*. Horretarako, lan-taldeen saioak prestatu, aurrera eraman beharreko metodologiak planifikatu eta saio edo prozesu parte-hartzaileetatik ateratako ondorioak landu beharko ditu esleipendunak.

i. *Inplikatutako erakundeek aldian behin emandako informazioaren bidez, atxikitzeko orduan hartutako konpromiso eta proiektuak betetzen direla egiaztatu.* Eta, halaber, jarduera-plan bakoitzaren epealdian organismoek aurrera eramandako beste jarduera batzuk identifikatu. Segimendu-prozesu horren bidez lortutako informazioa urteko txostenetan eta ekintza-planen azken ebaluazioko txosten batean zentralizatu beharko da.

j. Segimendu- eta ebaluazio-prozesuek hala aholkatuz gero, *aldaketak eta egokitzapenak proposatu* esparru estrategikoaren nahiz jarduera-planen *formulazioan* .

2- Euskarri tekniko eta metodologikoa:

a. Estrategiaren Gobernantza Ereduaren barruko *lan-espazio kolaboratiboak dinamizatzeko deialdiak eta dokumentazioa egin*.

b. Estrategia eta, zehazki, I. Ekintza Plana (2022-2024) gauzatzeko metodologia berritzaileak eta egokiak proposatu eta/edo landu. Estrategiaren espazioak eta lan-taldeak dinamizatzeko protokolo espezifikoak izan daitezke, edo Estrategiara atxikitako erakundeei balio gehigarriko eta inpaktu handiko proiektu eta ekimenak garatzen laguntzeko prozedura berritzaileak.

c. Beharrezkoak diren txostenak eta dokumentuak egin eta edukiak lantzen lagundu.

d. Erakunde, eragile, proiektu, ekimen eta jardueren mapaketa (lehendik dagoena) zabaldu eta garatu (ez soilik tokiko mailan), zuzenean nahiz zeharka, nahi gabeko bakardade egoerak prebenitu eta lantzen lagun dezaten.

3- Hainbat proiektu espezifikoren bidez gauzatzen den 2022-2024ko I. Ekintza Planaren esparruan, Estrategiara atxikitako erakundeei laguntza teknikoa eta aholkularitza aditua eskaintzea bakardade egoeren arloan eta proiektu eta esku-hartze berritzaileak lantzeko orduan.

Atxikitako erakundeei aholkua eta laguntza teknikoa eman behar zaie, Hariak estrategiaren esparruan hartutako eta 2022-2024ko I. Ekintza Planaren bidez gauzatutako konpromiso eta proiektu traktoreak aurrera eramateko, esparru estrategikoan koherentzia bat bermatuz eta ekimen horiek guztiak bat datozela ziurtatuz.

Lan hori Estrategiaren Zuzendaritzarekin koordinazioan egiteaz gain, *#Hariak Hub aholkularitza adituarekin* (jadanik eratua) *eta Hausnarketa Etikoko Taldearekin* (eratzeko bidean) lankidetzan egingo da.

Alde horretatik, erakunde esleipendunak/esleipendunek, aurrez, parte-hartze eta dinamizazio prozesu bat eraman beharko dute aurrera Gipuzkoako 10 eskualdeetako udalerri guztiekin, elkarrekin adostu ahal izateko eskualde bakoitzeko zer udalerritan eramango den aurrera nahi gabeko bakardadeak

prebenitu edota lantzeko proiektu espezifiko bat 2022-2024ko I. Ekintza Planaren esparruan.
Parte hartuko duten 10 udalerriak zehaztu ondoren, aurrera eraman beharreko proiektuak zehaztuko dira.

Ikuspegi publiko-pribatu-komunitario batetik nahi gabeko bakardade egoerak prebenitu eta lantzeko tokiko ekosistemak eraikitzeko proiektuak izango dira. Idazkaritza Teknikoak 10 proiektu horiei lagunduko die proiektu horiek aurrera eramaten, laguntza teknikoa eskainiz.

Deskribatutako 10 proiektu horiek Hariak estrategiaren I. Ekintza Planaren epealdiaren barruan eraman beharko dira aurrera, hau da, 2022 eta 2024 artean, eta estrategiaren zuzendaritzarekin adostuko dira. Adostasunik ezean, estrategiaren zuzendaritzak ahalmena izango du proiektu horien behin-betiko izaera zehazteko.
Proiektu horietan, kontuan izan beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiak ekintza komunitarioaren inguruan ezarritako esparru kontzeptual, estrategiko eta operatiboa.

4- Estrategiaren Zuzendaritzari laguntzea 2022-2024ko I. Ekintza Planean ezarritako gomendio eta gidalerro batzuk gauzatzeko orduan.

Estrategiara atxikitako eta “Adinberri-Hariak ekosistema” osatzen duten erakundeek landutako proiektuak alde batera utzirik, Adinberri Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak konpromisoa hartzen dute beren gain Estrategian jasotzen diren gomendio zehatz batzuk bultzatzeko (bereziki, ikerketaren eta ezagutzaren kudeaketaren arloko gomendioak). Beraz, esleipendunak Estrategiaren Zuzendaritzari lagundu beharko dio 2022-2024ko I. Ekintza Planaren esparruan bien artean adostutako gomendio batzuk aurrera eramaten.

5- Nahi gabeko bakardade egoerei aurre egiteko baliabideei buruzko kontsultak bideratzea.

Estrategiara atxikitako erakunde eta eragileek nahi gabeko bakardade egoerei aurre egiteko eskaintzen dituzten baliabide eta ekimenei buruz herritarrek egindako galderak eta informazio-eskaerak zentralizatu behar ditu esleipendunak. Halaber, eskaera horiek bideratuko ditu hirugarren sektore sozialeko erakundeetara edo alor horretan zerbitzuak eskaintzen dituzten espazio publiko/pribatu/komunitarioetara. Eta, aldi berean, nahi gabeko egoeren prebentzioan eta lankidetzan aritzen diren erakunde, eragile eta ekimenak Hariak sarean sar daitezen lagunduko du, lehendik dagoen mapaketa eta katalogoa zabalduz.

6- Parte-hartzea:

Estrategiaren esparruan aurrera eramandako parte-hartze prozesuen ondorioak diseinatu, dinamizatu eta landu beharko dira.

7- Komunikazioa:

a. Barne-komunikazioari dagokionez, lan-espazioen, proiektuen eta Estrategiara atxikitako erakunde eta eragileen −eta horien lan-talde, kabinete edo komunikazio-sailen− arteko komunikazioa ona izan dadin zaindu beharko du enpresa lizitatzaileak.

b. Kanpo-komunikazioari dagokionez, esleipendunak koordinazioan egon beharko du Adinberri Fundazioaren komunikazio-alorrarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Komunikazio Departamentuarekin (eta, zehazki, Gizarte Politiketako Departamentuko komunikazio-arduradunekin), Estrategiarekin lotutako komunikazio-ekintzak aurrera eramateko laguntza emanez (sare sozialak, buletin elektronikoak, web-espazio birtualak, hainbat formatutan eta birtualki nahiz presentzialki egindako jardueren zabalkundea…). 2022-2024ko I. Ekintza Planaren bilakaera eta egikaritzea eta Hariak esparru estrategikoaren gauzatzea ikusgarri egiteko egin beharko da hori.

c. *Hariak estrategiaren barruan, ezagutzaren kudeaketarako eta transferentziarako aktibatu asmo den webgunea eraikitzen eta elikatzen laguntzea:* gaur egun, aurrera eramandako prozesuari buruzko informazio orokorra jasotzen da, eta Estrategiaren dokumentu espezifikoa deskarga daiteke. Halaber, gaiarekin lotutako ekitaldi, berri eta aktualitateari buruzko agenda bat du, eta herritarrei aukera eskaintzen zaie Hariak-en dekalogora atxikitzeko. Erakunde esleipendunak Estrategiaren webgune hori mantendu eta eguneratu beharko du (http://hariak.adinberri.eus), izan dadin, komunikaziorako eta parte hartzeko funtzionalitate eta tresna berriak gaineratuz.

8- Ezagutza: Bakardadearen Behatokia:

Segimendu- eta ebaluazio-prozesuetan bakardade egoerei buruz bildutako informazioa koordinatu eta jakinarazi beharko zaio Adinberriren Behatokiari, edukiz elikatu ahal izateko. Aldi berean, Behatokiarekin egindako lanaren eta koordinazioaren bidez, elkar elikatuko dute bakardade egoerei buruzko ezagutzan eta Estrategian ezarritako gomendioetako bat (Bakardadeen Behatokia) aurrera eramateko lanean.

9- Ebaluazioa:

a. *Ebaluazio-txostenak egitea:* Jarduera-planen segimendu-txostenez gain, Estrategia (esparru estrategikoa) ebaluatzeko bi txosten egin beharko dira. Horietatik lehenengoa −tartekoa− 2024aren amaieran egin beharko da, I. Ekintza Plana amaitzearekin batera, eta jarduera-planen ebaluazio-prozesuetatik ateratako informazioan oinarritu beharko da, hau da, gomendioak zer neurritan betetzen ari diren eta Estrategiaren beste elementu batzuk (aldaketaren teoria edo ibilbide estrategikoak) esperotako emaitzak ematen ari diren aztertu beharko da. Bigarren txostena, berriz, Estrategiaren indarraldia amaitzean egin beharko da, eta, txosten horretan, Estrategiak Gipuzkoako arreta-ereduan eta bakardade egoeretan izandako eragina ebaluatu beharko da. Modu horretan, Gipuzkoako bakardade egoerei buruzko ezagutzan sakondu ahal izango da, eta Gipuzkoako bakardade egoerei aurre egiteko balizko II. Estrategia batean jaso beharko liratekeen ildoak zehazten lagunduko da.

   Idazkaritza Teknikoak egin beharko ditu lizitazioak xede duen kontratuaren indarraldian −edo, hala badagokio, luzapenean− egin beharreko ebaluazio-txostenak.

b. *Prozesuei eta eraginei buruzko adierazleen aginte-taula bat egin eta mantentzea,* neurri bakoitzari buruzko informazioa lortu eta Estrategian jasotako proiektu traktoreak ebaluatzeko tresnak planifikatzeko, helburu hauekin: modu eraginkorrean betetzen ari diren gomendio eta konpromisoak eta horien eragina identifikatu eta aurrera eramandako proiektu traktoreen emaitza nagusiak zehaztu. Horrek guztiak lotura izan beharko du Fundazioaren 2022-2026ko Berrikuntzarako Agenda Estrategikoan definitutako adierazle eta aginte-taularekin.

5. METODOLOGIA ETA LAN-PLANA

Enpresa lizitatzailearen proposamenean, zerbitzuaren metodologia, lan-plana eta mugarri nagusiak −bakoitza bere datarekin− jaso beharko dira. Lanen bilakaeraren eta segimenduaren berri izateko, ADINBERRI Fundazioak aukera izango du −zerbitzuaren beharren arabera− zerbitzua aurrera eramateko beharrezko jotako behar adina dokumentu aurkez ditzan eta beharrezko jotako lan- edo informazio-bileretara joan dadin eskatzeko enpresa esleipendunari (presentzialki eta/edo telematikoki egin ahal izango du esleipendunak). Dokumentu eta jarduera guztiak ele bitan egingo dira −euskaraz eta gaztelaniaz−, baina horrek ez du prezio edo kargu gehigarririk sortuko, eta ADINBERRI-Hariak eskuliburu korporatiboaren arabera egin beharko dira.

Halaber, hizkuntza, irudiak eta edukiak modu ez-sexistan eta ez-androzentrikoan erabiliko direla bermatuko duten komunikazio-politikak aplikatuko dira.

7. LANEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA

ADINBERRI Fundazioak lanak ikuskatzeko eta kontrolatzeko bete beharreko funtzioak bete ditzan lagundu beharko du enpresa esleipendunak, eta, horretarako, zorrotz bete beharko ditu jasotako ohar eta gomendio guztiak.

Edonola ere, segimendua egiteko modua (bilerak, aktak, txostenak…) aldatu ahal izango du ADINBERRI Fundazioak, baldin eta beharrezkoa dela iruditzen bazaio.

Halaber, kontratua ondo garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak ere eskaini beharko ditu (adibidez, lan-bilera edo informazio-bileretara joatea), hargatik ordainketa osagarririk jasotzeko eskubiderik gabe. Berme-epea amaitu arte mantenduko da obligazio hori.

7. PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZA

Beharrezkoa izango da proiektuaren segimendu-mekanismoak zehaztea. Esleipendunak izendatutako arduradunak honako alor hauek kontrolatu beharko ditu:

♣ Fundazioarekin mantentzen den elkarrizketa.

♣ Aldaketa eta arazoen komunikazioa.

Arriskuen kudeaketa

♣ Interes eta taldeen koordinazioa.

♣ Planaren eta baliabideen kudeaketa.

♣ Proiektuaren dokumentazioaren kalitatea eta egitura

Donostia, 2022ko abenduaren 20a

AINHOA BECERRA SOTELO

Firmado digitalmente por AINHOA BECERRA SOTELO
Fecha: 2022.12.20 19:18:14 +01'00'

Ainhoa BECERRA SOTELO

Sin. Adinberri Fundazioko Berrikuntza arduraduna